


# Rosalind Frankliren ekarpena, **ukaezina**

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Rosalind Franklin zientzia-arloko bazterkeriaren adibide ezagunenetakoa bat da. Izan ere, jakina da Franklinek egindako lana (bereziki, 51 argazkiaren izenez ezagutzen den irudi ikonikoa) baliatu zutela James Watsonek eta Francis Crickek DNAREN egitura asmatzeko. Alabaina, hasiera batean, bi ikertzaileek ez zioten halakorik aitortu Franklini, eta aipamen bat baino ez zioten egin, justu duela 70 urte DNAREN egitura argituz [Nature aldizkarian, argitaratu zuten artikulua](#) [amaieran](#).



Rosalind Franklin mikroskopioarekin lanean, 1955ean.  
ARG.: MRC Laboratory of Molecular Biology/CC 4.0.

Gerora, Frankliren ikerketa nabarmendu bada ere, zalantzan jarri da zenbateraino jabetzen zen irudi haren esanahiaz. Hain zuzen, gehien zabaldu den ikuspegia James Watsonek idatzi zuen liburu batean oinarritzen da. *The Double Helix: A Personal Account of the Discovery of the Structure of DNA* du izenburua ("Helize bikoitza: DNAREN egituraren aurkikuntzari buruzko azalpen pertsonal bat"), eta, haren arabera, Franklinek DNAREN egitura erakusten zuen irudia lortu zuen, baina ez zen ohartu zer esan nahi zuen. Aldiz, ikusi orduko jabetu zen Watson helize bikoitzaren egitura adierazten zuela.

Liburua Frankliren heriotzaren ondotik argitaratu zen, eta oso eztabaidatua izan da. Zientzialari batek baino gehiagok gezurtatu ditu Watsonek idatzitako zenbait adierazpen, eta Watsonek berak ere aitortu zuen gero urteak behar izan zituela Frankliren eskuzabaltasuna onartzeko. Beste lekukotza batzuek ere erakusten dute afera korapilotsua izan zela. Oso ezaguna da, esaterako, Franklinek eta Wilkinsek harreman benetan txarra zutela elkarren artean.

Orain, garai hartako dokumentu batzuek agerian jarri dute Watsonek eta Crickek bezainbeste

ulertzen zuela DNAREN egitura Franklinek. Matthew Cobbek eta Nathaniel Comfortek aztertu dituzte dokumentu horiek. Baiezatu dutenez, Franklin ez zen Watsonen eta Cricken "biktima" bat izan, orain arte azaldu izan den moduan, baizik eta DNAREN egitura aurkitu zuten kideetako bat: Maurice Wilkinsekin batera, "arazo zientifikoa artikulatu zuen taldearen erdia izan zen, konponbide baterako hasierako urrats garrantzitsuak eman zituen, datu erabakigarriak eman zituen eta emaitza egiaztatu zuen".

*“Franklin ez zen Watsonen eta Cricken biktima bat izan, baizik eta DNAREN egitura aurkitu zuten kideetako bat”*

Historia osatzen lagundu duten dokumentuen artean daude, batetik, Joan Bruce kazetariaren zirraborroetan aurkitutako artikulu bat, zeinak Franklini jasotako adierazpenak baitzituen, eta, bestetik, Franklinek kideetako batek Cricki idatzitako gutun bat. Bietan argi geratzen da Franklinek ulertzen zuela DNAREN egitura.

[Cobbek eta Comfortek Naturen bertan azaldu dute hori guztia](#), eta argitu dute bi talderen lanaren emaitza izan zela DNAREN egituraren aurkikuntza: Franklinek eta Wilkinsek lan esperimentalak egin zituen, eta Watsonek eta Crickek, berriz, teorikoa. Hain zuzen, 1953ko apirilaren 25 hartan, Watsonen eta Cricken artikularekin batera, [Wilkinsen](#) eta [Franklinen](#) eta bakoitzaren taldekideen beste artikulu bana ere argitaratu zituen *Nature* aldizkariak.

Horrez gain, adierazi dute Franklin, ageriko diskriminazio sexistaren aurka ez ezik, bazterkeria-mota



Irudia: DataBase Center for Life Science\_CC4.0

ezkutuagoen aurka ere bazegoela, eta haietako batzuk gaur egun ere badaudela.

Franklin 77 urterekin hil zen, 1958an, obarioko minbiziak jota. Lau urte geroago jaso zuten Nobel saria Watsonek, Crickek eta Wilkinsek, DNAREN egitura argitzeagatik. Saria jasotzean egin zituzten hitzaldietan, Watsonek eta Crickek ez zituen Franklin aipatu, eta Wilkinsek, azaletik eta beste batzuen artean baino ez. Geroago, ordea, hirurek onartu zituen Franklinek lana ezinbestekoa izan zela DNAREN egitura ezagutzeko. ●



[Rosalind Franklin  
istorioa, webgunean](#)